

ILUNBE ARENAREN EGOERA DELA-ETA, KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Ilunbe Arenaren egoera dela eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urriaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak erabilera askotarako gune baten beharra du. Eta hori Ilunbe Arena izan daiteke.

Eragile musikalek, behin eta berriz, gure hiria kontzertuak erakartzeko lehiakorra ez dela adierazi dute. Garai batean Donostiak izan zuen ospea galdu egin da, Antonio Elorza belodromoak gaur egun dituen mugak direla medio.

Gainera, GBC saskibaloitako taldeak ere, behin baino gehiagotan, Ilunberen birmoldaketaren alde dagoela adierazi du, saskibaloitako partidak egiteko mugak dituela-eta.

Donostiak, eragileek adierazi bezala, lehiakortasuna galdu du, eta Udal Gobernuak bere esku dauka Ilunbe Arena erabilera askotarako gune bihurtzea; hiriak ekitaldiak berreskura ditzen eta instalazioen erabilpena areagotu dezan. Bai kulturalki, bai ekonomikoki, honek garrantzia izan dezake. Behar hau nabaria da, baina Udal Gobernuak ez du orain arte ezer ere egin gabezia honi aurre egiteko.

Martin Ibabe delegatuak, batzordean, hainbat eragilerekin bilerak egin dituela adierazi zuen; kirol, kultura eta musika ekitaldien beharrak eta Ilunbe erabilpen askotarako gune bihurtzea aztertzeke. Zinegotziak, gabezien artean, lurreko zola, musika akustika, aldagela gutxi izatea ... aipatu zituen. Besterik ez. Denbora aurrera doa eta aurrerapauso bat eman behar dela uste dugu.

Hori dela-eta, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

